


# AISIA ETA KULTURA

## IKASTAROAK



Aisialdi eta Animazio Soziokulturaleko Eskolak prestakuntza zentroak dira, bakoitzak bere hezkuntza proiektua eskaintzen duena, batak eta besteak duten ereduaren ikuspuntutik moldatuta. Horretarako, elkarte eta gizabanakoen beharretara egokitu eta erantzunik egokiena bilatzen dute, gero eta eskaera handiagoa duen prestakuntza berri honi begira, aldeztu aurretik esku-hartze komunitarioaren alorrean izango diren eskariak antolatuz. Ikastaroen antolatzaileak eskolak berak dira; Eusko Jaurlaritzak balidatu egiten ditu haiek emandako tituluak. **Eskola bakoitzean aurkituko duzu** edukiari, matrikulazio-epari eta abarri buruzko **informazioa**.

### ➤ **Monitore ikastaroa**

Ikastaro hau hezkuntza eginkizunak dituzten pertsonen zuzendutara dago. Helburu nagusia da pertsona horiek hezitzaile gisa prestatzea beren ingurumarian dituzten giza elementuak kontuan hartuta (neska-mutilak, gazte taldeak, familia, gizartea, arduradun-taldeak...). Horrekin batera, monitoreari halako jarraibideak eman nahi dizkiogu, bere jardunaren gaineko hausnarketa eta azterketa egin dezan, erreferentzia gune egoki baten ikuspuntutik.



### **Baldintzak**

18 urtetik gora izatea, edo, matrikulazio-urte barruan adin hori izatea.

Eskolak berak eska ditzake baldintza osagarriak.

### **Trebakuntza-aldi teorikoa**

Gai teorikoek 160 orduko iraupena dute gutxienez. Bertan ematen diren ikasgaiak ondorengoak dira: aisialdiari buruzko soziologia; aisialdiari buruzko pedagogia; aisialdiari buruzko psikologia; parte hartzea eta heziketa-jardura aisialdian.

Gai teknikoek berriz, 60 orduko iraupena dute. Bertan dauden gaiak hauek dira: adierazpenak; susperketa; natura-arloko pedagogia; ingurumen-heziketa; talde-dinamika.

### ***Trebakuntza-aldi praktikoa***

Era trinkoan egiten bada, programatutako jarduera praktikoa batean parte hartuz baino ezin izango da burutu. Hori udaleku batean, kampamenduan, ibilaldian edo antzeko ekintza batean izan beharko da eta gutxienez 12 egun jarraian iraun beharko du.

Era sakabanatuan egiten bada, praktika-aldia trebakuntza teorikoarekin batera egin ahal izango da. Gutxienez hiru hilabete eta 120 ordu bete beharko dira.



#### ➤ **Zuzendari ikastaroa**

Ikastaroa hau zuzenduta dago aisialdiko zentro bat zuzendu behar duten pertsonei, monitoreak koordinatu behar dituztenei edo aisialdiko zentroan ardura handiko eginkizunak dituztenei.

Helburu nagusia pertsona horiek zeregin horietan gaitzea da, eta horretarako gogoeta eta hausnarketarako elementuak eskaini nahi dizkiegu, eta aurreneko urratsetan behar duten laguntza eskuratu.



#### **Baldintzak**

21 urte izatea, edo matrikulazio-urte barruan adin hori izatea ikastaroaren hasieran.

Aisialdirako Begirale izateko agiri ofizialaren jabe izatea.

Bigarren Heziketaldia edo horren baliokide den beste mailaren bat gaindituta izatea.

### ***Trebakuntza-aldi teorikoa***

- Gutxienez 100 orduko iraupena du, eta bertan ematen diren ikasgaiak ondorengoak dira: heziketa-taldea; haur eta gazteei lotutako politikaren azterketa; gaur egun haurreriak eta gazteriak duten egoeraren azterketa; aisialdiaren inguru

soziokulturalari buruzko azterketa; heziketa-proiektua eta plangintza aisialdian; legeria aisialdiari dagokionez; ekonomia eta administrazio kudeaketa eta antolaketa aisialdian.

### ***Trebakuntza-aldi praktikoa***

Era trinkoan eta era sakabanatuan bete daiteke hau, baina beti ere, trebakuntza-aldi teorikoa bukatu eta hurrengo urteko iraila baino lehen bete behar da.

## **➤ Gizarte eta kultura sustatzailea**

### ***Baldintzak***

21 urte izatea edo ikasturtean zehar betetzea, beti ere, praktikak egin aurretik. Goi-mailako Batxilergoko edo bigarren mailako Lanbide Heziketako titulua izatea, edo horren baliokidea, edo DBHko ikasketak bukatuak izatea. 25 urtetik gorakoek ez dituzte betekizun horiek bete behar. Boluntariora-entitate bateko partaide aktiboa izatea.

### **Prestakuntza teorikoa**

Teoria arloan 75 ordu bete behar dira gutxienez. Ondorengo gaietan banatuta dago: Euskadiko gizarte, -politika, eskuduntza- eta erakunde-eremuak; suspertze soziokulturala; partehartze, elkargintza eta boluntarioen mugimendua.

Teknika eta baliabideen arloa 125 ordutan banatuta dago. Bertan jorratzen diren gaiak hauek dira: soziologia; gizarte-psikologia eta talde-dinamika; entitate baten kudeaketa eta antolaketa; gizartean jarduteko egitasmoak planifikatu, gauzatu, sustatu eta baloratzea; gizarte-garapenerako teknikak.

### **Prestakuntza praktikoa**

Urrats hau boluntario gisa egingo da. Urratsa ondorengo moduan antolatuta dago: jarduketarako proiektua gauzatzea; proiektua gauzatzea; praktikak baloratzeko txostena egitea.